

PRENTSA OHARRA: 2021.03.22

Euskal zinema Nantesera itzuliko da 2020ko etenaldiaren ostean

- Guztira 13 euskal film izango dira ikusgai Nantesen, zazpi luze eta sei labur

- 30 urte betetzen dituen jaialdiaren aurtengo edizioa Covid-19ak baldintzatua izango da

Frantziar Espainiar zinematik duen erakusleho ezagunena den Nantesko Festival du Cinéma Espagnol-ek 30. urteurrena ospatuko du aurten martxoaren 25etik apirilaren 4ra. Euskal zinemagintzarentzat oso erakusleho garrantzitsua bilakatu da jaialdia azken urteotan Etxepare Euskal Institutuak, Euskadiko Filmategiarekin lankidetzan, babesten eta sustatzen duen Fenêtre Basque edo Euskal Leihoari esker.

Atal honek euskal ekoizpen nabarmenenak eta, oro har, euskal zinemagile garrantzitsuenen lanak jasotzen ditu. Julio Vernerren jaioterria Frantziako kritikari profesionalen eta zine-industriaren hiria ere bihurtzen da urtero 27.000 bat ikusle biltzen dituen Nanteseko Zinemaldian, eta Fenêtre Basque atalak 20 urte betetzen ditu aurten beraz, guztiak ohituta daude honezkero euskal zinea ikusten.

13 izango dira Nantesko jaialdian ikusgai izango diren euskal filmak, zazpi luzeak eta sei laburrak. Eskainiko diren film laburrak, aurreko urteetan bezala, Kimuak 2020 aukeraketan jasotakoak izango dira, Tucker Dávila Wood eta Larry Mankusoren *Barbudos* (2020), María Elorza eta Koldo Almandoz tandemaren *Quebrantos* (2020), Paul Urkijoren *Dar-Dar* (2020), Huazkena Taldearen *Ehiza* (2020), Pablo Hernandoren *El ruido solar* (2020) eta Marina Palacioren *Ya no duermo* (2020).

Oskar Alegriaren *Zumiriki* (2019) izango da Nantesko ikuslegoak gozatu ahal izango duten luzemetraietako bat, nafar Pirinioetan lurrarekin lotzen ahalegintzen den gizon

bati buruzko dokumentala, 2019an Veneziako jaialdian saritua. Film luzeekin jarraituz, Asier Altunaren *Arzak Since 1987* (2020) filma ere ikusgai izango da. Gastronomía maite dutenek gozamen handiz ikusiko duten nola eraldatu den 100 urtetan zehar tradizioetik euskal gastronomiaren abangoardia den jabetzea izatera. Horrez gain, Imanol Rayoren eskutik *Hil kanpaiak* (2020) Lara Izagirreraren *Nora* (2020) eta Telmo Esnalaren *Urtzen* (2020) filmak ikusiko dira.

Halaber, bi euskal ekoizpen izango dira Sail Ofizialean: *Baby* (2020) Juanma Bajo Ulloarena eta *Ane* (2020) David Perez Sañudorena.

30. urteurrena, edizio berezia

1990ean sortu zen jaialdi honen helburua espainiar zinea Frantzia zabaltzea da eta horretarako emanaldi zinematografikoez gain hainbat ekitaldi ezberdin gauzatzen dituzte jaialdiak irauten duen bitartean, Frantziako eta Espainiako kultura arloko pertsonaia ezagunekin mahainguruak, arte erakusketak, kontzertuak, eta abar.

Covid-19ak baldintzatutako edizioa izango da aurtengoa. Horregatik, formatu digitalean egitea erabaki dute, baina ahaztu gabe aurrez aurreko zinemak duen xarma berezia. Zinema areto eta kultur-guneen irekieraren ziurgabetasuna dela eta, ez-ohiko erabakia hartu dute antolatzaileek; jaialdia FestivalScope platafoma bidez burutuko dute.

Jaialdia formatu digitalean gauzatuko den arren, aurrez aurreko ekintzak burutuko dira maiatzaren 21etik 23ra, ekainaren 11tik 13ra eta ekainaren 19 eta 20ean. Katorza, Les Cinématographe zinemak eta Teatro Graslin dira zine jaialdiaren alde fisikoaren harrera izateko hautatu dituzten antzokiak.

FENÊTRE BASQUE/ EUSKAL LEIHOA

Kimuak 2020

Barbudos (2020), Tucker Dávila Wood eta Larry Mankuso

Dar-Dar (2020), Paul Urkijo Alijo

Ehiza (2020), Hauazkena Taldea

El ruido solar (2020), Pablo Hernando

Quebrantos (2020), Maria Elorza eta Koldo Almandoz

Ya no duermo (2020), Marina Palacio

Film luzeak

Zumiriki (2019), Oskar Alegria

Nora (2020), Lara Izagirre

Urtzen (2020), Telmo Esnal

Arzak Since 1897 (2020), Asier Altuna

Hil Kanpaiak (2020), Imanol Rayo

Sail Ofizialean

Baby (2020), Juanma Bajo Ulloa

Ane (2020), David Perez Sañudo

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus